

# Ez adiorik, gero arte baizik

#AgurAtaria // **2-3**



'ATARIA'-k kolaborazio sare zabala du, lantaldearen lanaren osagarri. San Esteban auzoko egoitzan 14 pertsonak egiten dute posible 'ATARIA'; orain hutsik geratu da. I. LUQUE

# Inoizko daturik onenak zituela iritsi da heriotza

Gaurkoa izango da 'Ataria'-ren azken alea, 793.arekin iritsi zaio azkena; arratsaldean emango diogu azken agurra Tolosaldeko Komunikazio Taldeari, 18:30etik aurrera

## Erredakzioa Tolosa

ATARIA hil da, baina hau ez da iragarritako heriotza baten kronika. Bat-batean iritsi zaio ATARIA-ri heriotza. Inoizko daturik onenak ematen ari zenean, Atarikideen babes zabala zuenean –ez da aski izan, hala ere–, kalitateko kazetaritza profesionala egiten ari zela, eskualdeko txoko guztietara iristeko lanean ari zela... Lantaldea lanean harrapatu du heriotzak, ezustean.

Tokian tokiko albisteak herri-tarren begietatik jorratzen dituen euskarazko komunikazio taldea galdu du Tolosaldeak, aurrera egiteko babes nahikoa jaso ez duelako. Matizatu beharra dago hala ere, ez gaitezen engaina, egia da babesa jaso duela, *ataria.eus* atariko bisitek eten-

gabe egin dute gora, eta 2017a bukatu aurretik lortu du milioi bat bisiten langa pasatzea, atzoko datua argigarria da oso: urte hasieratik 1.075.115 bisita zituen *ataria.eus*-ek, iaz baino %13 gehiago. ATARIA IRRATIA-n inoizko kolaboratzaile sarerik zabale-na batu du, eduki propioak lantzeko ahalegina egin du eta ez dira gutxi, astero-astero, irratiko mikrofonoetara gerturatzen direnak euren tartea osatu edota *Pasahitza* magazineko tartea gizontzera etorri direnak.

## ETXEAN, EGUNERO

Aipatzekoak dira ere asteartetik ostiralera etxeko atarian egunkaria eta astekaria jasotzen dutenak. Eurek egin baitute posible eskualde mailako komunikabidea abiaraztea, eurek sostengatu

baitute ATARIA, eurek eta udalek, Tolosaldeko 28 herriek babestu baitute ere, komunikazio taldea. Baina ez horiek bakarrik Tolosaldea Garatzen, Tolomendi eta beste hainbat eragile ere aipatu behar dira, eta baita Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkako Foru Aldundia ere. Atarikide gabe, ATARIA ez da posible, eta beraz, harpidedun guztiak zoriondu beharrean gaude. Zuek izan zarete ATARIA, zuek egin duzue proiektua posible. Atarikide horiek dira kate luze baten katebegiak, gainera; Atarikide horien-gana iristen da egunero ATARIA eta horiei esker, gure lana 200.000tik gora pertsonengana iristen da. Guztiak zarete beharrezko eta ezinbesteko, baina proiektu potoloa osatu nahi izan dugu, bazter eta etxe guztietara

iritsi nahi izan dugu eta herritarren lan eta ekarpenak lau haizetara zabaldu. Babesa jaso dugu, baina ez da nahikoa izan.

## WEBGUNA

200.000 erabiltzaile izan zarete 2017an *ataria.eus* bisitatu du-zuenak. Eskualdeko albisteak bertako ikuspegitik, bertatik bertara eta profesionaltasunez jaso nahi izan duzuenak. Euskaraz arnastu nahi duzue eta ATARIA-k bere aletxoak jarri nahi izan du, Euskal Herri euskalduna egiten lagundu dugulako, horretan he-

dabideok berebiziko garrantzia baitugu.

Aitortza behar dugu. Egunero-egunero *ataria.eus*-eko bisita kopuruarekin jasotzen dugu aitortza, baina zoritxarrez hori ez da nahikoa izan. Atarikideen aitortza behar da, guztion proiektua egiten jarraitzeko. Horregatik zabaldu genuen harpidetzak egiteko modua. Gizartearen abiadurara egokitu ginen eta ATARIA sare sozialetan, Interneten orokorrean, eta gailu guztietara egokitu zen. Badakigu ATARIA jarraitzen duten asko jada, ohitura berrietara egokitu direla,

**Atarikideak eta 28 udaletako laguntzak ez dira nahikoak proiektu profesional eta sendoari heltzeko**

**2.500 bat bisita izaten ditu webguneak egunero, harpidetza digitalarekin heriotza ekidin ahalko litzateke**

eta jada ez dutela etxean egunkaria edo astekaria jaso nahi, Interneten dute behar duten informazio kontrastatu, egiazko eta profesionala, eta hori hartu dute egunero-egunero. Baina Interneteko albiste jarioaren atzean lantalde bat dago eta hori eusteko Atarikideak behar dira. Horregatik, egokitu ginen behar berrietara, eta horregatik dibertsifikatu genituen ATARIA sostengatzeko harpidetzak.

# 14.000


## IRISMENA

CIES etxearen azkeneko neurketaren arabera, ATARIA 14.000 pertsonengana iristen da egunero.

Interneteko erabiltzaileek urteko 50 euro ordainduta proiektu osoa hauspotzen laguntzeko aukera izan dute, pentsa, egunero-egunero *ataria.eus* bisitatzen duten 1.800 erabiltzaileek, harpidetza digitala ordainduko balute, 90.000 euroko diru sarrera izango luke Tolosaldeko komunikazio taldeak. Eta diru hori proiektua sendotzeko, eskaintza zabaltzeko eta gizarteari jasotakoa itzultzeko baliatu ahalko luke. Ametsa ote? Ziur gaude posible dela, baina kontzientziak kitzikatu beharrean dago ATARIA, heriotzera iritsi den honetan. Euskara hutsean komunikatuko duen talde sendoa galdu baitu eskualdeak. Ez da broma, euskarak behar du ATARIA, Tolosaldeak behar gaitu.

## IBILBIDE MOTZA, BAINA OPAROA

Lau urte pasatxo dira jada, ATARIA sortu zela. Baliabideak optimizatzeko beharraz ohartuta, el-



## ATARIA.EUS-eko erabiltzaileak

■ ATARIKIDE direnak eta proiektua laguntzen dutenak.

■ EZ DUENAK LAGUNTZEN baina Ataria jarraitzen dutenak.

kartu beharraz hitz egin zuten eskualdeko hiru komunikabide nagusiek, *Galtzaundi* astekaria, *Txolarre* irratia eta *Tolosaldeko Hitza* egunkariak, eta ez zuten zalantzarik izan, elkartu eta informazio profesionala helarazteko konpromisoari heldu zioten. Hasierak ez dira errazak izaten, hori esan ohi da, eta ATARIA-rena ere ez zen samurra izan, baina eskualdearekiko eta euskararekiko konpromisoak bultzatuta aurrera egitea lortu eta pausoz pauso talde sendoa egitea lortu zuen. Gaur arte.

Iban Urdapilleta Alkizalete da egun, ATARIA-ko kudeatzailea eta ekarpen guztiak eskertu nahi

izan ditu. «Atarikideak, 28 udalak, eragileak eta erakundeak zoriondu nahi ditut, euren babesak egin baitzuen posible ATARIA», esan du.

# 2.500

## BISITAK INTERNETEN

1.800 pertsonak bisitatzen dute egunero, *ataria.eus*, bai zuzenean sartuta eta baita sare sozialen bidez, harpidetza digitala ordainduko balute 90.000 euro jasoko lituzke komunikazio taldeak.

ATARIA-k proiektu sendoa osatzen duela irakurriko zenuten behin eta berriz, eta horrela da, aurrekontua da horren isla. 700.000 euro inguruko aurrekontua izan du 2017an, eta inbertsio eta gastuak parekatzea lortu du, baina kostata ez pentsa, lan asko egin behar da kontuak parekatzeko eta lantaldeak hartu duen konpromisoa erabakigarria izan da horretan. 2018rako aurrekontua ere prest zuen, hor ere kontuak parean uztea aurreikusi zen, ez baitzuen aukerarik eman inbertsio berriak egiteko, baina horretan gertatuko da aurrekontua, paperean.

Gastu potenteak ditu ATARIA-k; gastu finkoak, pertsonalaren gas-

tuak, inprenta gastuak eta bana-keta dira aurrekontuaren zatirik handiena hartzen dutenak, eta horri buelta emateko, Tolosaldeko 28 herrien ekarpena zein Atarikideena oso garrantzitsuak izan badira ere, ez da nahikoa izan.

Azken urteetan informazio jarioa urte guztira zabaltzeko ahalgina ere aipatzekoa da. Abuztuan ez zuen jada, etenik egiten. Ez zen papereko alerik kalera-tzen, baina Interneten bizi-bizi egoten zen eskualdeko komunikazio taldea. Lantaldeak argi baitzuen: herritarrek informazioa nahi dute egunero, etenik gabe, eta ahal den neurrian hori betetzen saiatu izan da ATARIA.

**Atarian jarrita  
Gipuzkoako  
2 Hitzetan  
DOAN**

ESKELAK •

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 16:00ak arte

hartzen ditugu



## Tolosaldeko Ataria

2013-2017



Familia: Atarikideak, lan taldea, kolaboratzaileak, elkarte eta erakunde lankideak eta beste hainbat.

Agur ekitaldi ibiltaria gaur, Tolosako kaleetan izango da. Arratsaldeko 18:30ean San Esteban 20tik abiatuko da eta Alde Zaharra zeharkatu ostean Tonto kalean bukatuko da, agurrarekin.

*Ez adiorik, gero arte baizik*

TOLOSALDEA, 2017ko abenduaren 28a  
Oharra: Egoitza izandakoaren atarian, San Esteban 20, egun guztian zehar agurtzeko aukera izango da.





Iñaki Moyua sorotu duen azken lanarekin kamera aurrean, Juanito Loperen omenezkoa. JOSU ARTUTXA

Iñaki Moyua artistak, Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsako kideekin batera, aurrera jarraitu nahi du Erraldoi eta Buruhandien Etxea izeneko proiektuarekin.

# Oinarri sendo bat eraiki asmoz

**Josu Artutxa**

**U**rte amaiera-rako, Altzoko erraldoiaren eskultura bat egitea aurrei-kusten bazuen ere, azken unean proiektu hori atzeratu egin zaio-la dio Iñaki Moyuak; hala ere, horretan jarri nahi ditu bai burua, baita eskuak ere, epeak errespetatu ahal izateko. Izan ere, aspektu ekonomikoari eman nahi dio garrantzia hemendik aurrera

tolosarrak, eta lan horri esker, subentzio bat jasoko du. Juanito Loperen lanaren kasuan ere, udaletxetik eta Juanito Loperen Lagunak elkartetik ordainsari txiki bat jasoko du; «behintzat, materiala ordaintzeko beste balioko dit», dio. Bere ustetan, ordea, guztia ez da dirua, baina gutxi estimatua sentitzen du bere burua. «Nirea, beste edozein lanbide baino espezializatuagoa dela esango nuke, honetan oso gutxi egiten dugulako lan».

Eta lanean, izan afizioz edo ofizioz, jada badira hilabete batzuk, Tolosako Erraldoi eta Bu-

ruhandien Konpartsako kideak, ferialekuko pabiloi handian egokitu direla. Bertan gordetzen ditu Moyuak bere proiektu guztiak, bertan egiten dute lo zezentxo, buruhandi eta erraldoiek eta hain justu, aurrerantzean, Juanito Loperen erakusketa txiki bat ikusteko aukera ere izango dute bertaratzen diren guztiek. Orain gauzak lasaitasun handiagoarekin hartzen ditu, inongo presiorik gabe, lan bakoitzak bere erritmoa duelako, eta gauza batzuek beste batzuek baino karga gehiago eskatzen duelako. Baina, orain diru laguntzak jasotzeko

asmoa dela, diru kontuak egin behar direla edota ikastetxeekin kontaktuan egon behar direla, informeak prestatzen dihardute, sormen aldeari tokirik kendu gabe. «Beti dago zerbait egin beharra, eta orain, horrek du zama handiena».

**Beste edozein lanbide baino espezializatuagoa da, honetan oso gutxi egiten dugu lan**

Izan ere, buruan bueltaka du, maiatzean ATARIA-rekin eginda-

ko erreportaje batean aipatu zuen proiektua: Erraldoi eta Buruhandien Etxea. Proiektu horren barruan, lehen aipatutako erakusketaz aparte, ikastetxe ezberdinetako haurren bisitak jasotzen jarraitzeko asmoa dute-nez, harmaila handi bat jarri

**Lehen buruhandi bat egiteak, burla suposatzen zuen. Orain, ohore bat da, maitasunez eginez gero**

dute, haurrak bertan esertzen direnean, erraldoi eta buruhan-



**ORIA**  **BEILATOKIA**  
TANATORIO

Usabal Ind., 12- 20400 Tolosa  
943 69 75 79  
[www.funerariaoria.com](http://www.funerariaoria.com)

**BERTAKO PRODUKTUAK  
SALTZEN DITUGU**



**ERRAZKIN  
ARTOLA**  
harategia

EUSKAL HERRIA KALEA 53, IBARRA  
TFNO 943 24 94 29



dien erakustaldia ikusteko aukera izan dezaten. Horrela, ordenatuago eta erosoago esertzeko aukera izango dute. «Oroitzen nola esan nuen 700 haur inguru igaro zirela aurreko maiatzera bitarte hemendik?», galdetzen zuen Moyuak, «bada, 1.000 haurren langa ere igaro genuen ikasturte amaierarako».

Gainera, aipatu beharra dago, eskualdeko ikastetxe ezberdinetako ikasle eta irakasleez gain, bestelako tokietatik etorritako jendearen bisita ere jaso dutela. Esaterako, eskualdeko ikastetxe baten bitartez, elkartruke batean, Poloniatik etorritako ikasle batzuen, baita Titirijai jaialdia zela eta, bertan antzezlan bat egin zuen talde batena ere. «Kanpotarrak, harrituta geratzen dira hemen ikusten dutenarekin, batez ere, On Ostegun Gizenen autoarekin edota txerriarekin». Modu horretan, eta Tolosa turistikoki nahiko herri bisitatu dela jakinda, bertaratzen diren banakako nahiz talde kanpotarrekin gauza bera egin nahi da. Bideoak ikusteko aukera emango duen proiektio gune bat eta guzti ere jarri nahi dute. «Herriko zati garrantzitsu bat saldu nahi diegu, eta horretarako, beharrezkoa da hemen geldirik ikusten dena, gero kalean nola mugitzen den ikusi ahal izatea», gaineratzen du.

Baina, Moyuak badaki, bera ez dela ferialekuko langile bakarra. Atzetik, buruhandien barruan haurren oihuak entzuten eta erraldioen azpian pisu handiko karga jasaten duten gazte talde bat du. Horiek ematen diote bizi-poza berari, eta horiei esker hazten ari da, ordu gehiago sartzeko gogo ematen diola aitortzen duelarik. Bere esanetan, «hauxe baita proiektuaren helburu edo ideia nagusia: bertako jendearekin oinarri sendo bat eraikitzea, kultura mota hau boteretsuagoa izan dadin eta etorkizunean bere funtzioa betetzen jarrai dezan». Horri jarraiki, tailer eta kurtso



Harmailak jarrita daude dagoeneko ferialekuan. J.A.



Erraldoi eta buruhandiek haur eta nagusien ikusmira sortzen dute. J.A.

ezberdinak baliatu nahi ditu, sormenerako ahalmena izango duen harrobi moduko bat sortze aldera. «Herrian ez dago eskulturarako mugimendu handirik, ezta hori lantzeko aukera handirik ere».

Aurrera begira, bestelako jarduera txikiagoak ere pentsatuta ditu. Adibidez, Gabonetako oporraldian, haurrentzat izateaz gain, helduentzat ere izango den tailer bat jarriko du martxan. «Batez ere, haurrekin egi-

ten dugun lan hori, helduekin ere egin nahi dugulako, konpartaren historia edota erraldoi eta buruhandi bakoitzaren bitxikeriak eta informazio ezberdina kontatzeaz gain, sormen aldetik, material ezberdinekin lan egin eta norberak, eskala txikiagoan bada ere, bere buruhandi pertsonalizatua sortzeko aukera izango du, hastapen metodo ezberdinak ezagutuz. Esperientzia pilotu moduko bat izango da, baina guraso eta haur

askoren baieztapenak jaso ditugu jada».

Lehen saiakera hori, hain zuzen, lehen aipatutako proiektu horren beste bultzada bat izango da. «Azkenean, Erraldoi eta Buruhandien Etxea, hau guztia da. Lehen ia itzalita zegoenak, argi bat ikusi du amaieran», dio Moyuak, ferialekuko ertz guztietara begiratzen jartzen delarik. «Hemen hasten da dena, bertatik ikasi behar dugu, elkarlanean, balore batzuk transmititzen; espazio propio bat dugu, eta termino askotan lan egitea da gure helburua». Hori dela eta, haur eta gaztetxoengan interes txiki bat pizte aldera, hezkuntza ere aurrerapauso bat emateko aukera badagoela ikusten dute, material didaktiko modura, sormena landu ahal izateko zerbait egin daitekeela, alegia.

Belaunaldi berriak gogotsu datoz atzetik, eta hori erraldoi eta buruhandien herrian dantzan eta haur zein gaztetxoengan atzetik lasterka aritzen direnean nabaria da. Garaiak aldatu egin dira, eta Moyuak ere ederki asko daki hori. Ez dira soilik aurrerapen teknologikoen ondorioz aldatu, buruhandien munduan ere birmoldatu eta egokitu dira garai berrietara. «Ez dugu ahaztu behar, lehen buruhandi bat egiteak, burla edo irain moduko bat suposatzen zuela pertsonaia horrentzat. Orain, berriz, ohore bat da, baldin eta nola egiten duzun noski; baina, maitasunez eta pasioz eginez gero, oso zaila da emaitza txarra izatea».

«Orain arte egindako lan guztiak antzekoak», baina aldi berean, «beraien artean oso ezberdina dira», dio. Egun, pantaila ezberdinekin atentzioa bereganatzeko duten boterea nabarmena dela badakien arren, erraldoiek «magia berezi bat» dutela dio, beraiei begira dagoela. «Geldirik daudela, inozoak dirudite, baina lehen mugimenduekin bizirik daudela sentiarazten dizute, txotxongiloekin

gertatzen den bezala». Eta erraldoiei buruz ari garela, gogora ekarri nahi ditugu, konpartsak, duela hilabete batzuk kaleratu zituen lehen bi erraldioen panpina txiki haiek, sekulako arrakasta izan dutelako herrian. «Hala da. Hirugarren txandako guztiak ere saldu dira, eta oso gustura gaude emaitzarekin, baita jendeak emandako erantzunarekin ere. 2018ko sanjoanetan, bigarren bikotearen panpinak kale-ratzea espero dugu».

Haurrentzako materialarekin jarraituz, eta *Goazen margotzera!* nahiz *Goazen jolastera!* liburuxkek izandako emaitza positiboa kontuan izanda, hauen segida izango diren marrazki nahiz denbora-pasak, beste koaderno batean publikatzeko asmoa dute. «Liburuxkak garrantzitsuagoak dira niretzat, haurrengan eragin handiagoa izateko aukera ematen dutelako». Datoren asteetarako, berriz, Gabonak datozela aprobetxatuz, material ezberdinak prest dituztela aitortu dute. «Sorpresa izango da, eta beraz, izango duzue honen berri».

Errealitateko buruhandi eta erraldoiei dagokienez, batekin geratzekotan, Moyuak oso argi dauka: duela hamarkada batzuk, berak egindako bat. Hala ere, irribarre inozo bat ere ateratzen zaio ahotik egin duen azkenaz hizketan hasten bada, Juanito Loperi askok zioten maitasuna bereganatu baitu proiektu horrekin. Orain, garai bateko artista tolosarrak egindako egur eta eskaiolazko pieza eta eskulturekin, erakusketa bat osatu du. «Askok, familiako kideek, lagunek edota ezagunek emandakoak dira, originalak, eta bitxikeriaren bat edo beste ezkututzen dutenak». Behin eta berriz begiratzen dio Loperi. «Bera niri begira dagoela iruditzen zait, eta aurreko batean, esaterako, eskua eta guzti eman nion», dio, buruhandiari begirik kentzen ez dion bitartean.

SARTU GURE ON LINE DENDAN ETA...  
**GOZOGILE BATEN**  
GRINA EZAGUTU EZAZU

**RAFA GORROTXATEGI**  
1680

**rafa.gorrotxategi.eus**

**Denda:**  
Solana 1, Tolosa  
**Lantegia:**  
Pol. Usabal, 14, Tolosa  
**943 89 03 06**



# «Ezberdinen arteko elkarlanaren eredua da»

Abenduaren 31n, manifestazioa euskal presoek eskubideen alde, Aiztondoko udalek deituta

**Imanol Garcia Landa**

Urte Zahar egunerako Aiztondo bailarako udalek manifestazioa deitu dute euskal presoek eskubideen alde, urtero legez. Aurten Sareren babesarekin egin dute manifestazioaren deialdia. *Euskal presoak Euskal Herrira. Giza eskubideak, konponbidea, bakea* lelopean antolatu dute Aduna, Amasa-Villabona, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalek. Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik abiatuko da 19:00etan, eta Villabonan amaituko da.

Sareko kide den Ander Goikoetxeak azaldu duenez, «Sareren helburua da ezberdinen arteko



Abenduaren 31ko manifestaziorako deialdia egin dute Aiztondoko hainbat udaletako eta Sareko ordezkariak. I.G.L.

elkarlana bultzatzea presoek eskubideen alde, eta uste dugu mobilizazio honek mahai gainean jartzen duela eredu hau. Aiztondo bailarako udal guztien babesa jaso du manifestazioak». Estatuen «immobilismoaren aurka» egin daitekeena, hain justu, hori dela zehaztu du Goikoetxeak: «Herritarrak antolatzea ezberdinen arteko elkarlan batekin, mahai gainean jartzeko

ematen ari diren eskubide urraketak».

Horren harira azken hilabeteetan pauso «oso positiboak» ikusi direla gaineratu du Goikoetxeak: «Bake Artisauen eskutik ETaren armagabetzea eman zen apirilean eta ondoren Parisen izan zen mobilizazioa». Bestalde, gogora ekarri du aurten Euskal Herriko erakunde nagusietan «bai preso gaixoen egoera sa-

latzeko bai salbuespeneko politikekin bukatzeko eskaerak» onartu direla, bai Nafarroako Parlamentuan, bai Eusko Legebiltzarrean, eta baita Araba, Bizkai eta Gipuzkoako batzar nagusietan ere.

Erakundeen parte hartze horrekin batera, «funtsezkoa» ikusten dute Saretik «gizarte zibilaren aktibazioa eskubide zapalke-ta hauekin bukatu ahal izateko».

Goikoetxeak azaldu duenez, «salbuespeneko legedia aipatzen dugunean, aipatu behar dugu presoek urrutzea eta horrekin batera sakabanaketa». Horrekin batera «presoek senideei eta bereziki hauen haurrei» aplikatzen zaien sakabanaketaz mintzatu da. Bestalde, gaixo larrien egoera salatu du Goikoetxeak eta egun espetxean 11 preso larri gaixo daudela zehaztu du, horien «berehalako askatasuna» eskatuz.

## BILBORAKO AUTOBUSAK


Urtarrilaren 13an Sarek Bilbon antolatu duen manifestaziora joateko autobusetan izena emateko zerrendak zabalik daude Tolosaldeko ohiko lekuetan. Arratsaldean da manifestazioa, baina goizez egitaraua antolatu dute Bilbon. Beraz, autobusean joateko bi aukera izango dira aurten, goizez eta arratsaldez.

# 91 pilotari ariko dira topaketan

## Erredakzioa

Hasi da Gabonetako XVI. Pilota Topaketa eta guztira 91 pilotarik eman dute izena. Sei mailatan banatu dute lehiaketa: benjamin-aurrekoak, benjaminak, alebinak, infantil mutilak, infantil neskak eta kadete mutilak. Intxurre Pilota Eskolak eta Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Ikaztegieta eta Amezketa guraso elkarteek antolatu dute topaketa.

Alegiako Elorri frontoian elkartu ziren atzo arratsaldean parte hartzaile gehienak eta ohiko familia argazkia ateratzeko aukera izan zen. Ondoren, baita goiztik frontoira joan



Alegiako Elorri frontoian atera zuten atzo parte hartzaileen argazkia. Ondoren, partidak jokatzera joan ziren. I.G.L.

zen partidak jokatzera. Sailkapen partidak atzo eta gaur bitartean jokatu dira, 16:00etan hasita,

eta finalak larunbatean, Altzoko frontoian, 10:30ean hasita. Partida guztiak, maila guztietan,

12 tantotara izango dira. Pilota goxoez jokatu da, beraz, ez da esku-babesik behar.

## Urtea giza kate batekin bukatuko du Tolosako GEDk

### Erredakzioa Tolosa

Tolosako Gure Esku Dagok giza kate batekin emango dio urteari bukaera. Napar zubia eta Zubi berria batuko dituzte, Oria ibaia- ren bi aldeetatik, *Eman eskua etorkizunari* lelopean. Hitzordua abenduaren 31n izango da, 18:00etan. Parte hartzeko [tolosangureesku@gmail.com](mailto:tolosangureesku@gmail.com) helbidera idatzi daiteke. Izena eman ala ez, parte hartzeko deia zabaldu dute GEDtik eskualdeko herritar guztiei eta deialdia hauspotzeko ahalegin denak asko eskertuko dituztela diote.

# Ataria bertso jaialdia 2018



Agin Laburu



Aitor Mendiluze



Amets Arzallus



Andoni Egaña



Beñat Iguaran



Maialen Lujanbio



Gai jartzailea:  
Amaia Agirre

Sarrerak Atarikideentzat, 8€

Egin zure erreserba urtarrilaren 5era bitarte. Gehienez 2 sarrera bakoitzak.

Deitu edo idatzi:

943 65 56 95 edo [atarikide@ataria.eus](mailto:atarikide@ataria.eus)-era.

Urtarrilak 20, larunbata. 19:30. Tolosa, Leidor.

# Pilotari onenen finala, Anttonen izenean

# Maider Mendizabal omenduko dute larunbatean, Anoetan

**Iñaki Lizaso/Asier Imaz**

Azken jaialdiaren eguna iritsi da. Abenduaren 30ean, larunbata, jokatuko da Antton Pebeten omenez antolatzen den txapelketaren finala, 17:30ean.

24 bikoteren artetik, bi onenek jokatuko dute aurtengo eskuz binakako finala. Abenduaren leian hasi zen txapelketa, eta partida bikainak ikusi ahal izan dira Villabonako Bearzana pilotalekuan. Askok faboritotzat zituzten arren, Exposito, Alberdi, Garmendia, Gorrotxategi, Santxo, Peru Labaka... bidean geratu dira. Argi geratu da, berriro ere, pilota partidak jokatu egin behar direla, izenak ez dituela 22 tantotak oparitzen eta maila honetan edozeinek irabazi dezakeela. Horrek, emozioa ematen dio txapelketari, azken egunera arte inork ez baitaki nor iritsiko den finalera.

# Urbieta-Arangunek eta Arrieta-Zezeagak jokatuko dute VI. Pebeten Omenezko Txapelketaren finala

Pasa den abenduaren 23an jokatuko ziren finalerdiei zegozkien bi partidak. Lehenengoan, Urbietaren eta Arangurenaren 22-14 irabazi zituen Salaberria-Garmendia bikoteari. Arangurenaren, bere joko puntu ona berretsi zuen eta Garmendia baino gehiago izan zen. Lazkaoako atzelariak ez zuen bere egunik onena izan, baina

Arangurenak, hori gertatzearen errua izan zuen. Azken honek, pilota gogor astindu zuen bi eskuekin eta kantxa asko zaindu.

Urbietta asteasuararak, berriz, gogo handiz jokatu zuen berriro ere, eta Salaberria gazteari erasoan nahiz defentsan gailendu zitzaion.

Bigarren partidán, Arrieta eta Zezeagak 22-12 irabazi zuten Exposito eta Telletxearen aurka. 11-4 irabazten joan ziren partidaren hondarrean galtzaile suertatu zirenak. Tanto bat gehiago besterik ez zuten egin Arrieta sendo eta eraginkorraren, eta pilotazaleak aho bete hortz utzi zituen Zezeagaren aurka. Bergarako gazteak pilotakada ikusgarriak jo zituen. Oraindik ere entzuten dira jo zituen esku zartadak pilotaren aurka.

Finala oso irekia aurreikusten da. Bi pilotari gazte atzean eta beste bi esperientziadun aurrean. Aranguren agiñarrak bigarren finala izango du Villabonako txapelketan. III. edizioan, kadele mailan, txapela irabaztea lortu zuen Sein oiartzuarrarekin batera.

Xabi Urbieta asteasuarrak bere lehen finala izango du. Aukera paregabea du beraz duen palmares bikaina gizentzeko. Beraien aurkariek ere lehen finala izango dute. Hernaniko Arrietak, IV. edizioan atzelari jokatu zuen Santxorekin batera, maila ikusgarria emanez gainera. Baina oraingoan, txapela aurrelari gisa irabazi nahi du. Elorriotik



**VI. Antton Pebeten Oroimenezkoaren finalean eskualdeko ordezkari bakarra egongo da: Xabi Urbietia. IÑAKI LOPETEGI**

jokatzen duen Zezeagak gorakada itzela eman du azken urteetan eta maila gorenean txapela irabazteko ilusioaz beteta dago.

## JOKO GARBICO PARTIDA

Antton Pebet zena, Angelukoa zen sortzez. Bere azken tantoak Behar Zana taldearekin jokatu bazituen ere, lehen pilotakadak bertako Ardohytarrak pilota taldean eman zituen.

Bestalde, Amasa-Villabonan errebotean eta joko garbian jokatzen da; Behar Zana talde antolatzaileak, pilota eskolaren barruan, eskuzko eta palazko arloez gain, joko garbia gogotsu lantzen eta sustatzen baitu. Aipatu beharrekoa da gainera, hurreman oso ona dutela Villabonako eta Angeluko taldeek.

Horregatik, keinu bat eginez joko garbiari eta Ardohytarrak taldeari, larunbateko pilota jaialdia elite mailako joko garbi partida bikain batek irekiko du. Angeluko taldekoak dira lau pilotariak, izan ere, maila oneneko pilotariak bertan baitaude. Batek, J. Sisitiaguek eta Fredo Carriaburuk jokatuko dute eta besteak, B. Driotelek eta E. De Paredesek. Beraz, jaialdia ikusgarritasun bereziarekin hasiko da.

Txapelketa guztian bezalaxe, sarrera doakoa izango da eta saski eder baten zozketa egingo da. Finalean, Urraki banatzaileak, Urdaira Sagardotegiak eta Baque kafeek eskainitako produktuekin osatutako saskia zozketatuko da.

## RAKETISTAK ETA MENDIZABAL

Abenduaren 30ean, larunbatean, Anoetan Emakume Raketisten inguruko egitarauak jarrai-

pena izango du. 18:30ean pilota partidak jokatuko dira pilotalekuan, eta ondoren, Maider Mendizabal herritarrari omenaldia egingo diote.

Emakume Raketisten inguruko egitasmoa abenduaren 19an jarri zuten martxan Anoetan. Orduan zabaldu zuten erakusketa oraindik ikusgai dago liburutegian. Abenduaren 29a izango da argazki bilduma ikusteko azken eguna.

# Urtarrilak 5, Jokin Altuna Beotibarren

---

**A. Imaz Tolosa**

Binakako Txapelketaren seigarren jardunaldia ostiral honetan hasiko da, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Olaizola II.ak eta Imazen ordezkakutuko duen Untoriak, Irribarria-Merino II.a izango dituzte aurrean. Tolosako jaialdia 16:30ean hasiko da Errandonea-Lasa IV eta Etxeberrria-Merino I.aren arteko partidarekin.

Jokin Altunak Eibarren jokatuko du seigarren jardunaldiari dagokion partida, astelehenean, Martija lagun Bengoetxea VI-La-

runberen aurka. Pilota aukera-  
keta partida baina ordubete le-  
henago egingo dute. Urteko le-  
hen pilota jaialdia 17:00etan ha-  
siko da, eta lehen partida  
Retegi-Jaunarenak eta Jaka-  
Erostarbek jokatu dute.

## ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Amezketarrak Tolosan zazpigarren jardunaldiko partida jokatuko du. Altuna III-Martija bikotearen aurkariak Irribarria eta Merino II.a izango dira. Asegarce-k jaialdi hori 17:00etarako iragarri du. Oraindik lehen partida zehazteke dago.



# Urte amaieran, Asteasura

Urrezko Aizkolarien Kopako eta Gabonetako Harri-  
jasotzaileen Txapelketako finalak jokatu dira, 17:00etan

---

**A. Imaz** Asteasu

Urte herri kirolekin amaituko dute Asteasun. Igandean, 17:00etan, aizkolariak, harri-jasotzaileak eta txinga eroalea ariko dira lanean. Proba ikusgarriak izango dira, bi finala eta marka

ahalegina izango baitira. Urrezko Aizkolarien Kopan Jon Rekondo (Leitza), Mieltxo Minguea (Doneztebe) eta Mikel Larrañaga (Azpeitia) iritsi dira finalera. 16 enbor ebaki beharko dituzte: 45 ontzako bi eta 54ko hamalau. Gabonetako Harri-ja-

sotze Txapelketaren finalean Mikel Lopetegi Urria (Zarautz), Xabier Peñagarikano (Aizarnazabal) eta Inhar Urruzuno (Ondarroa) ariko dira, 100 kiloko hiru harriekin. Azkenik, Ousmane Dramak 100 kiloko txingekin marka saiakera egingo du.



**OSTEGUNA, 2017KO URTARRILAK 28**  
**Argitaratzailea:**  
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Naiara Roldan de Aranguiz  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.  
villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022.  
anoetalea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034.  
alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezera arreta zerbitzua:** **902 82 02 01**



www.ataria.eus

**ATARIA IRRATIA**  
**107.6 FM**

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



Larunbatean Altzo Muinoko frontoiak mende erdia beteko du; 50 urtez zutik. Inguruko herrietan erreferente izan zen denbora luzez, frontoi estali gutxi baitziren.

# Altzoko pilotalekuak 50 urte

Jexux Murua Altzo

**A**benduaren 30ean beteko dira 50 urte, Altzoko pilota-lekua inauguratu zenetik (1967-12-30). Egun berean inauguratu zen Altzo Azpi eta Altzo Muino lotzen zituen errepidea ere, Izarreko errebutatik Otsegira bitartekoa. Aldi berean berriro ziren herriko plaza, orduz gero beste berriro batzuk izan dituen, eta baita udaletxea bera ere, kanpo eta barru.

Bide loturari eta gainerako obrei garrantziarik kendu gabe, garrantzia berezia izan zuen orduko Altzo Muinoko frontoiak, Santa Barbara ermitaren ondoan kokatua dagoenak. Ez ziren orduan, inguruan, frontoi estali asko eta orduan eta gutxiago honelako herri txiki batean. Pilota-lekua izaki, pilota izan da nagusi hemen urte hauetan guztietan, baina ez hori bakarrik: aurtan antolatu da frontoi honetan 30. bertso-jaialdia, urtez urte antolatu dena etenik gabe eta urteko hitzordu apartekoa dutena bertso-lari eta bertsozale askok. Zenbat festa, herri bazkari, herri afari...

## ALTZO ETA INGURUKO PILOTARI ETA PILOTAZALEEN ALTZO

Herriko gaztetxo, gazte eta ez hain gazteren jolastokia izan da frontoi hau. Ez da egongo Altzon frontoi honetan pilotan ibili ez



Altzoko frontoiko irudi zaharra. ATARIA

den neska edo mutilik. Batzuk jolas hutsagatik, besteak helburu sendoagoekin: zartada frango joltakoak dira hemen Joxean Unsain eta Juan Karlos Olano; eskuzko pilotan profesionala eta bigarren mailan txapelduna izana hura, eta pala luzean profesional izana hau, gaztetan eskuz ibilbide ederra egin eta gero. Antzera, honen anaia gaztea, Miel Olano, palaz garaiko goi-mailako afizionatu guztiekin aritua, mundiale-tan-eta. Batzuk aipatze arren...

Herriko pelotariak ez ezik, ingurukoetakoei ere eman zien babesak frontoi honek. Modalitate guztietan ikusi da hemen jendea: eskuz, palaz (goma, paleta, pala motza), zesta punta, share... saio gogor edo frogara arinak egiten. Bere le-

hen hogeitertan, ez ziren gutxitan ibili hemen beren prestaketa saioak egiten orduko inguruko pilotari profesionalak: aipatutako Joxean Unsain altzotarra ez ezik, sarri ibiltzen ziren hemen Joxean Tolosa txapeldun ugartearra, Joxean Urretabizkaia ikaztegiarra, Karmelo Goikoetxea lizartarra, Anizeto Lazkano tolosarra, eta abar luzea.

Zenbat jolas eta zenbat joko. Gauza kuriosoak ikusi dira hemen, apustu xeble askoak ere bai. Esan ohi den bezala: zenbat gauza esango ote lituzkete horma hauek, hitz egiten balekete!

Izan zuen, bai, estimazioa. Baina gero, aurreko mendeko laurogeiko hamarkadan hasi ziren inguruko herriek beren frontoiak eraikitzen.

Handik, galdu egin zuen hama-bost-hogei urtez izan zuen protagonismoa. Horrezaz gain, bizi ohitura aldaketek eta abarrek eskatuta, pilotazaletasuna sustatzea beste erremediorik ez da izan. Altzoko pilota eskolak, Alegia eta Ikaztegieta-koarekin elkartzen dena Intxurre pilota elkarteak, eman dio horri erantzuna, eta bizirik segitzen du pilotazaletasunak Altzon. Asko eta asko dira galtza zuriak jantzi dituztenak azken urtetan: 2016an lortu zen Altzok parte hartzea Herriarte-ko txapelketan; lan bikaina egin zuen 2017an, eta hartuko du parte 2018an. Maila ona ematen ari den neska pala-jokalaritza taldea ere bada.

## OSPATZEKO, XVI. GABONETAKO TOPAKETETAKO FINALAK

Ospakizunei hasiera emateko, bertan jokatu dira XVI. Gabonetako Pilota Topaketako finalak. Abenduaren 30ean, inauguratu zela 50 urte bete diren egun berean, goizeko 10:30etan hasi-ko dira jokatzeko gaztetxoaren arteko finalak, 6 urtetik 16 urte bitartekoak, bakoitza beren mailan. Altzo eta inguruko herrietako 91 neska-mutilek eman dute izena, eta hauetako 24 ikusiko ditugu bertan.

Etor daitezke ekintza gehiago, urtean zehar. Ospakizunak ospakizun, orain arte izan eta eman duen bizia izaten eta ematen jarrai dezala da opa zaiona. Urte askoan!

## OSTEGUNA 28

### AGENDA

#### Deialdiak

**Asteasu.** Etxe magiko filmak eskainiko dute, 16:30ean, udaletxeko gelan eta ondoren merienda.

**Tolosa.** *El ladron de Bagdad* filmak. Zine Foruma. Jatorrizko bertsioan. 19:15 eta 21:45ean, Leidorren.

**Zizurkil.** Ipuinen mundua familian ekimena. 17:00etan, Plazida Otaño liburutegian.

### ATARIA IRRATIA

Egun gustian zehar. Euskal musika.

### FARMAZIAK

#### Gaur

#### TOLOSA. Egunekoa.

Olarrega Aranburu, I. Korreo kalea, 2.

Telefonoa: 943 67 0128.

#### Gaukekoa. Morant Barber, R.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 673849.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

### EGURALDIA

GAUR



10° / 07°

BIHAR



14° / 08°

### ZORION AGURRAK

CAFE CORTADO DULCE

- ● ○ ○ ○ ○ ○ +

kafe bat with one sugar please!

#### Zorionak!

Etxeko txikia handitzen ari da... Gaur hamaiketan kafea azukre askorekin nahi dugu. Gozoa zure esku!

**2018ko**  
mahai egutegiak  
eskuragarri.

Pasa zaitzete  
hauen bila hilaren  
18tik aurrera.

San Esteban, 20 Tolosa 20400



**sariduna**

Atarikideentzat **saskia** dugu

**TOLOSAKO AZOKAKO PRODUKTUEN SASKIA**

• Martxeli Sagastume (Alegia)

Ataria jarriko da harremanetan